

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

3/2019 Foru Agindua, uztailaren 18koa. 46/2009 Foru Agindua aldatzea, azaroaren 18koa, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartu zuena

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 3/1989 Legearen 33. artikulua (16/1997 Legeak aldatutakoa, azaroaren 7koa), urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikuluekin lotuz, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartu zuena, xedatu zuen bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako langileen aukeraketa arauz zehaztuko diren prozeduren arabera hautatuko direla, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren irizpideei erreparatuz, ahal bezain azkar eginez. Horrez gain, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 58. artikulua, Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuena, lege prozedura berretsi zuen eta euskal administrazio oro gaitu zuen gai horri buruzko araudi propioa ezartzeko; bidenabar, agindu horrek hainbat hautapen irizpide ezarri zituen, modu antolatu eta lehenetsian.

Aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartu zuen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduz geroztik pilatutako esperientziak gomendagarri egiten du araudia eguneratzea eta egokitzea aldi baterako enplegu poltsak sortzeko esparruan, hainbat hautapen prozesu egitearen ondorioz; hala, lehenago aipatu bezala poltsak sortzean azkartasun eta eraginkortasunez jokatu ahal izatea da helburua. Horrenbestez, enplegu poltsak sortzeari buruzko artikulua eta horri dagozkionak aldatu egin behar dira, gaur egungo aukera teknologikoekin bat etorriko den sistema malgu eta eraginkorra artikulatzeko xedez.

Bat etorritik Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testuategina onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin eta Euskal Funtzio Publikoarenaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen VI. tituluaren xedatutakoarekin, bete da legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen nahitaezko negoziazioa.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egituraren eta Funtzionamenduaren Araudia onartzen duena, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40.11, 97.e) eta 98.3 artikuluekin lotuz, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenari Buruzkoa, eta uztailaren 6ko 3/1989 Legearen 33. artikuluari dagokionez (16/1997 Legeak aldatutakoa, azaroaren 7koa).

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 46/2009 Foru Aginduko laugarren artikulua aldatzea, azaroaren 18koa, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartzen duena; honela idatzita geratuko da:

"4. artikulua. Aldi baterako enplegurako lan poltsak sortzea

1. Aldi baterako lan poltsak ondoren datozen sistematariko baten bidez sortuko dira, eta lehenetasun hurrenkera honen arabera:

a) Funtzio publikoan sartzeko deialdien bidez (enplegu publikoaren eskaintzak), behin langileak hautatuta daudenean. Horretarako, langileak hautatzeko sistema horretako oinarrietan berariaz adierazi beharko da horren funtzio bikoitza (lanpostu hutsak betetzea eta aldi baterako lan poltsa sortzea).

b) Lan poltsetarako deialdi publikoaren bidez. Azken enplegu publikoaren eskaintzan deialdirik izan ez duten eskala, azpieskala eta klaseetako lanpostuetarako erabiliko da sistema hori, horrelakoetan ezin izan baita lan poltsarik sortu. Sistema horretan ere langileak hautatzeko sisteman erabiltzen diren irizpide eta prozedurak erabiliko dira.

2. Behin langileak hautatzeko behar den prozedura amaituta, eta gehienez sei hilabeteko epean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz hasiko du lan poltsak eratze prozedura. Horretarako, lan poltsa bakoitzean sartzeko eskubidea dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Enplegu Atarian (www.araba.eus/ifbs/portaldeempleo/), eta ALHAOn; horren bidez, beren eskubideei buruzko jakinarazpena emango zaie pertsona horiei, eta gutxienez 7 egun balioduneko epea irekiko da honako ekintza hauek egin ditzaten Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Atariaren bitartez:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari parte hartze lehentasunak jakinaraztea.

b) Pertsona ezinduak diren hautagaiek ezintasunaren ehunekoa adierazi beharko dute eskaeran, baita ezintasunaren balorazioari buruzko espedientea une horretan zein probintzian daukan ere. Lanpostu batean hasi aurretik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Laneko arriskuen prebentzioko unitateak dei egingo die pertsona horiei, eskatutako lanpostuetarako funtzioak garatzeko gaitasun ziurtagiria eman dezan unitate horrek, barne hartuz, hala bada-gokio, beharrezko lanpostura egokitze moldaketak aipatzea.

c) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, beste administrazio batzuetako zerbitzuen bitartez, honako datu hauek egiaztatuko dituela jakitea eta horren aurka ez egotea azaltzea:

– Identifikazioa.

– Titulazioa eta titulazioa lortzeko data.

– Hizkuntza eskakizun egiaztatua eta egiaztapenaren baliagarritasun data.

d) Hizkuntza eskakizuna egiaztatu izan gabe Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan adierazitako irizpideak betetzen dituzten pertsonak kasuan kasuko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Langileen Atalean.

3. Aurreko puntuan adierazitako epean, interesdunek behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Erreklamazioak pertsonaren bat zerrendan sartzeko egiten direnean, aurreko puntu horretan zehaztutako agiriak ere aurkeztu beharko dira erreklamazioarekin batera.

4. Epe horren ostean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailtzak ebatziko ditu erreklamazioak; izangaiek betekizunak betetzen dituztela ziurtatuko du eta Erakunde Autonomoaren Enplegu Atarian argitaratuko du lan poltsa bakoitzean sartzeko eskubidea dutenen behin betiko zerrenda.

5. Pertsona bakoitzak lan poltsa bakoitzean sartzean guztira izango duen puntuazioa honako hauek batuta aterako da: A) Dagokion hautatze sisteman lortutako puntuak.

B) Parte hartzeko lehentasunen arabera lortutako puntuak, eskala honen arabera: Araudi honen 3. artikuluko 3.1 atalean adierazitako hiru eskualdeetan lan egitea eskatu dutenak: 3 puntu.

– Hiru eskualdeetako bitan lan egitea eskatu dutenak: 1,5 puntu.

– Eskualde bakar batean lan egitea eskatu dutenak: 0 puntu. Edozein lanaldi mota eskatu dutenak: 1,5 puntu lehentasun aldaketak aurkeztean eta 1,5 puntu aurkeztu zirenetik urtebete igaro denean. Puntu horiek aukeratutako eskualdeengatik lortutako puntuei gehituko zaizkie.

C) Parte hartzeko lehentasunei eusteagatik lortutako puntuak:

– Hiru eskualdeetan lan egiteari eusten diotenak:

0,2 puntu urteko gehienez puntu batera arte.

– Hiru eskualdeetako bitan lan egiteari eusten diotenak: 0,1 puntu urteko gehienez 0,5 puntura arte.

– Eskualde bakar batean lan egiteari eusten diotenak: 0 puntu urteko.

Lan poltsetako pertsona bakoitzarentzat indarrean dauden eskualdeei buruzko lehentasunak aldatuz gero, C) atalean lehentasunei eusteagatik zehaztutako puntu kopurua hasierakoa izango da, hau da, 0 puntu.

D) Puntuak prestasunarengatik. Prestasuna bi faktorek eratzen dute:

– Jardunean, laneratzeko altan edo altan/lehentasunez laneratzeko prest egoteagatik lortutako puntuak: 0,003 puntu eguneko.

– Eskualde lehentasunei doitzen ez zaizkion izendapenak onartzeagatik lortutako puntuak: 0,003 puntu izendapenak irauten duen egun bakoitzeko.

Puntu horiek urte bakoitzeko urtarrilaren 15ean batuko dira, aurreko urtean lan egindako egun kopuruaren arabera. Behin pertsona bakoitzak guztira dituen puntuak zehaztuta, lan poltsak honela antolatuko dira: puntu gehien dituztenetatik gutxien dituztenetara; alegia, guztira puntu gehien dituen pertsona lan poltsako lehena izango da, eta horrela hurrenez hurren. Lortutako puntuetan berdinketa dagoenean, zerrendan izan beharreko hurrenkera zehazteko ondoko irizpide hauek erabiliko dira, hurrenez hurren:

– Atal honetako A osagaian puntu gehien edukitzea.

– Ezin denean, atal honetako B osagaian puntu gehien edukitzea.

– Hori ezin denean, atal honetako C osagaian puntu gehien edukitzea.

– Aurreko irizpidea ezin denean erabili, lanpostuetako eskala, azpieskala eta klase bakoitzean sartzeko eskatzen den titulazioari dagozkion ikasketa ofizialak bukatu izandako datarik zaharrena; lanpostuetako eskala, azpieskala eta klase bakoitzaren deialdiaren oinarri zehatzetan zehaztuko da. Egun hori egiaztatu ez duten izangaiei, bestalde, dagokien titulu akademikoa eman den eguna aplikatuko zaie.

6. Aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideak aplikatu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Enplegu Atarian argitara emango du lan poltsa bakoitzeko pertsonen behin-behineko hurrenkera, baita pertsona horiek adierazi dituzten parte hartzeko lehentasunak ere.

Argitalpen horren bidez 7 egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez da onartuko pertsona bakoitzak adierazi dituen parte hartzeko lehentasunak aldatzea.

Epe horren ostean, aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileak; horrez gain, aldi baterako lan poltsen hasierako osaketa onartuko du, eta lan poltsa horiek indarrean jarriko diren eguna zehaztuko du. Hasierako osaketa hori erakunde autonomoaren Enplegu Atarian eta ALHAOn argitaratuko da.”

Bigarrena. 46/2009 Foru Aginduko 6. artikulua aldatzea, azaroaren 18koa, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartzen duena; honela idatzita geratuko da:

“6. artikulua. Aldi baterako enplegurako lan poltsa berriak sortzea

Ondorioak. Aldi baterako enplegurako lan poltsa subsidiarioak. Araudi honen 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aldi baterako lan poltsa berri bat sortzeak ondoko aldaketak eragingo ditu indarrean sartzen denetik aurrera: 1. Artean indarrean egon den aldi baterako lan poltsa, eskala, azpieskala eta klase horri dagokiona, ez da aldi baterako enplegurako lan poltsa izango, eta aldi baterako lan poltsa subsidiario modura eratuko da. Azken poltsa hori bestea

agortutakoan baino ez da erabiliko. Lan poltsa subsidiarioa eratzen den unetik 8. eta 9. artikulua aplikatuz sortutako behin betiko edo aldi baterako baja egoerak ezabatu egingo dira, salbu eta borondatezko baja, aldi baterako bajak edo behin betikoak, eta jatorria zigorretan dutenak, araudi honen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Araudiko 6. artikulua aplikatuz, artean indarrean egon den aldi baterako lan poltsa subsidiarioa automatikoki baliogabetuko da, eskala, azpieskala eta klase berari dagokiona”.

Hirugarrena. 46/2009 Foru Aginduko 2. artikulua aldatzea, azaroaren 18koa, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartzen duena; honela idatzita geratuko da:

“2. Azkenik, eta zerrenda subsidiarioa agortzen bada, erakunde laguntzaileetara joko da (beste administrazio publiko batzuk, Enplegurako Zerbitzu Publikoak eta abar) langile beharra betetzeko. Sistema hori behin-behinean erabiliko da, aldi baterako lanetarako lan poltsak osatzeko beste deialdi bat egin arte, edo, bestela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde epe jakin batean egun kopuru zehatz bat lanean eman duten pertsona oro bere borondatez zerrenda subsidiarioetan sar dadin prozesua egin arte”.

Laugarrena. 46/2009 Foru Aginduko 9. artikuluko 3. atala aldatzea (Izendapena hobetzea), azaroaren 18koa, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartzen duena; honela idatzita geratuko da:

“9.3. Izendapena hobetzea.

1. Sistema honen arabera eskain daitezkeen izendapenak (artikulu honetako aurreko paragrafoan ezarri den prozeduraren bidez beteko diren egoeretan izan ezik) ezaugarri hauetakoren batzuk dituztenak dira:

1) Lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak; Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostu zerrendan ehuneko 100eko dedikazio erregimenarekin agertzen direnak, baita dedikazio gutxiagorekin agertzen direnak ere.

2) Urtebete baino gehiago irautea aurreikusita dagoen zerbitzu eginkizuna betetzeko bitarteko izaera, lanpostu hutsak betetzekoak izan ezik.

3) Lanpostua gordeko zaien eszedentziak, baldin eta gutxienez urtebeteko iraupena badute, bai eta zerbitzu bereziak ere.

4) Langileak erretiratzegatik egindako ordezkatzeko kontratuak.

2. Artikulu honen 9.1 atalean ezarritakoaren arabera izango da izendapen mota hau eskaintzeko prozedura, eta barne hartuko ditu, atal horretan aipatutako pertsonen gain, jardunean daudenak eta zerbitzuak ematen ari direnak; 9.3 atal honen 1. puntuan adierazitako ezaugarriak ez dituen izendapenen arabera zerbitzuak izan behar dira, lan poltsa berean izendapena izateagatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostu zerrendan ehuneko 100 baino dedikazio erregimen txikiagorekin agertutako postu hutsak betetzeko bitarteko izaerak izan ezik. Horiek deialdian sartuko dira, baldin eta parte hartzeko lehentasunak ez badatoz bat betetzen ari diren lanpostu hutsarekin.

Lanpostu hutsa betetzeko bitarteko izaerak izeneko 1.1) puntuak jasotako kasuan, kasuan kasuko izendapena hasteko data baino bost egun natural lehenago eskainiko da lanpostu hutsa betetzea, horrela egin badaiteke, lanpostua betetzeak presa duen ala ez.

Jardunean ari den pertsona batek lan eskaintza onartzen badu, aurreko izendapena automatikoki bertan behera utziko da; horren ondorioz ez da zerrenda edo lan poltsatik kanporatuko.

Araudi honen 10. artikuluan xedatutakoaz gain, izangaiak adierazitako lehentasunekin bat datorren eskaintza jaso eta hari uko egiten badiu, izendapena hobetzeko modalitatetik bi urterako

baja emango zaio, salbu eta honakoetan, non egungo lanpostuan jarraitzea edo eskaintza berria hartzearen artean aukeratu ahal izango duen:

— Izangaia Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostu zerrendan ehuneko 100eko lanaldia baino gutxiagoko lanpostu huts batean aritzea. Kasu horretan, urtebetez ez da izendapena hobetzeko prozeduran barne hartuko. Aipatutako aldia bukatu aurretik une horretako izendapena bukatuz gero, izendapena hobetzeko prozeduretan barne hartuko da, hala eskatzen badu idatziz, Langileen Atalera zuzenduz. -hautatutako pertsona beste lan poltsa bati dagokion plaza huts bat betetzen ari bada. Kasu horretan, bi urtez ez da izendapena hobetzeko prozeduran barne hartuko, aldi horretan prestutasunagatik izan ditzakeen puntuak gorabehera. Aipatutako aldia bukatu aurretik une horretako izendapena bukatuz gero, izendapena hobetzeko prozeduretan barne hartuko da, hala eskatzen badu idatziz, Langileen Atalera zuzenduz”

Bosgarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, 9.3 artikuluko 2. atala aldatzeki dagokiona salbu (Izendapena hobetzea); aipatutako azken atal hori indarrean sartzeko beharrezko aldaketa informatikoak egin beharko dira, eta indarrean sartzeko data hori ezingo da inolaz ere ez izan 2020ko urtarrilaren 1a baino geroago.

Seigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri —azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta—.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 18a

Gizarte Politiken Saileko diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA